

## LEHIAKETA FASEA

Kontrataziorako erabiliko diren irizpideak eta puntuazioa honako hauek dira:

### **GUZTIRA 100 PUNTU**

Langabeziarekin zerikusia duten irizpideak: 30 puntu

- a) Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana: 10 puntu arte
- b) Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana: 10 puntu arte
- c) Langabezia laguntzarik edo prestaziorik ez jasotzea: 10 puntu arte
- d) Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen jasotzailea izatea edo Subsidioa jasotzea (langabezi prestazioa jasotzeko aukera izaterik ez duenean) : 10 puntu arte

*Oharra: "c" eta "d" aukeretan irizpideak beteaz gero bietako bat hartzen da kontuan.*

Hautagaia eskaintzen den posturako egokia dela zehazten duten irizpideak: 60 puntu

- a) Eskaintako lanpostuari egokitzen zaizkion ezagupenak edo lan trebetasunak izatea: 10 puntu arte
  - 2 urte  $\geq$ : 10 puntu
  - Urte bete  $\geq$ : 5 puntu
  - Hileko: 0,4 puntu
- b) Ardurapean seme-alabak edukitzea edo eta kargak izatea (hipoteka, etab): 20 puntu arte. Hipoteka: 6 puntu
  - IPREM: 532,51€
    - Errenta  $\leq$  IPREMaren % 50: 20 puntu
    - Errenta IPREMaren % 50 - % 100 artean: 15 puntu
    - Errenta  $\geq$  IPREMaren % 100: 10 puntu
  - Hipoteka izatea: 6 puntu
- d) Emakumea izatea: 6 puntu
- e) Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea: 6 puntu
- f) Pertsona desgaitua izatea edo adimen osasuneko arazoak izatea: 6 puntu

g) Euskararen ezagutza: 6 puntu

Perfila 1 edo azterketa gainditua: 6 puntu

Ikastaroak eginak: 1 puntu

Ikasten ari dena: 1 puntu

Aretxabaletan erroldatua egotea: 10 puntu

Aretxabaletan 3 urte  $\geq$ : 10 puntu

Aretxabaletan urte bat  $\geq$ : 5 puntu

\* esperientzia baloratzekoan kontutan hartuko dira honako lan kontratuak: garbiketa, mantentze lanak, instalakuntzan, obrak (kalean edo eta eraikuntza barruan egindakoak); arreta lanetan ibili diren lan kontratuak ere puntuatuak izango dira.

Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Bi izangaiek edo gehiagok puntu kopuru bera izanez gero, hurrenkera Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua araberako egingo da.

Epaimahaiak Aretxabaletako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, aurkeztutakoen hurrenkerarekin.

Kontratazioa

Organo eskudunak, zerrendako hiru lehenak kontratatuko ditu apirilaren hogeitamarretik aurrera eta bost hilabeterako.